

Lekeitio Lagunkoiaren diagnostiko fasean herritarrek parte hartzeko kanpaina



Herritarren partaidetza
eta enplegua

Lekeitio Lagunkoiaren diagnostiko fasean herritarrek parte hartzeko kanpaina

Lekeitio herri lagunkoia izateko prozesuan, sentsibilizatzeko eta parte hartzeko kanpaina.

1. Erakunde sustatzaileak

Lekeitio Lagunkoia ekimeneko talde eragilea eta Lekeitioko Udala

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

Lekeitioko herritarrak

4. Lurralde eremua

Lekeitio (Bizkaia)

5. Egoera

Amaituta

6. Etiketak

Partaidetza, komunikazioa, Bizkaia, belaunaldi artekoa, lagunkoitasuna

7. Helburuak

- Talde eragileko kideen ahalduntzea bultzatzea, diagnostiko fasean prozesuaren bultzatzaile izan daitezen.
- Lekeitiar guztiei Lekeitio Lagunkoia-aren plangintzan parte hartzeko aukera ematea.
- Belaunaldien arteko eztabaida bultzatzea, Lekeitio lagunkoia izateko zer behar den antzemateko.
- Lekeitio lagunkoia izateko moduari buruzko ikuspegiak mahai gainean jarri eta bateratzea.
- Informazio erreala eskuratzea, ekintza plana ongi egiteko.
- Ahalik eta herritar gehienei proiektuari buruzko informazioa helaraztea, horrela haien parte hartzea sustatzeko.

8. Metodologia

Talde eragilea izan da protagonista. Ekintza guztiak diseinatu eta dinamizatu ditu. Talde eragilearen ekimenez eta Udalaren laguntzarekin jarri dira martxan ekintza horiek.

2017 amaieran, eskuorriak argitaratu eta herri osoan zabaldu ziren, talde eragilea sortu zela jakinarazteko. 2017 osoan, talde eragilea sortzen eta finkatzen jardun zuten, bai eta konpromisoak zehazten eta prozesuaren nondik norakoak zehazten ere. Talde eragileak zenbait ekimen (prentsa deialdiak, eztabaidak, solasaldiak adinekoen elkarteetan, Udalaren webgunean atal berri bat, eskuorri banaketa...) programatu zituen herri lagunkoien prozesuaren berri emateko, proiektua martxan zegoela azaltzeko eta jendearen parte hartzea sustatzeko.

2018an diagnostiko faseari ekin zitzaion, eta talde eragileak lanean jarraitu zuen, indartsu eta gogotsu.

Diagnostikoa egiteko lehen pausoa foku taldeak sortzea izan zen. Bi saio antolatu ziren herritarrek parte hartzeko. Horretarako, talde eragileak metodo hauek erabili zituen:

- Talde eragilea sortzeko egin zen moduan, foku taldeak sortzeko ere deialdi zabala egin zen zenbait komunikabidetan.
- Kartelak egin ziren, eta herriko punturik nagusienetan jarri.
- Udalaren sare sozialak eta webgunea erabili ziren informazioa zabaltzeko.
- Herritarren partaidetza bultzatzeko asmoz, asteburu bitan herriko zinema aretoan iragarki bat jarri zen pelikula proiektatu aurretik.
- Hitzaldi bat antolatu zen zahar etxean, prozesua azaltzeko eta jendea animatzeko foku taldeetan parte har zezaten.
- Gonbidapen gutuna bidali zitzaion herriko eragile nagusiei (Osakidetza, Uribarren Abaroa egoitza, farmaziak, ikastetxeak, merkataria...), foku taldeetan parte hartzeko.
- *Udaletik* albiste bideoan, prozesu guztiaren berri eman zen. Udalaren sare sozialetan zabaltzen da albiste hori ostegunero, 20:00etan. Lekeitio Lagunkoia prozesuari buruzko hainbat aipamen eta elkarrizketa argitaratu dira.
- Guztira 60 pertsona bildu ziren, foku taldeen bidez diagnostikoa egiteko. Herritar, herriko eragile eta udal teknikariz osatutako 6 mahai sortu ziren, eta, mahai bakoitzean, talde eragileko partaide pare batek dinamizatzaile

lanak egin zituen (3 mahai, pertsona nagusienak —adinaren arabera—; 1 mahai, zaintzaileena, eta 2 mahai, zerbitzu eta hornitzaileenak).

Hurrengo pausua izan zen Lekeitioren lagunkoitasun maila neurtzeko galdera sorta bat zabaltzea. Udalaren webgunean egon zen gutxi gorabehera hilabetez, eta momentuan telematikoki erantzuteko aukera zegoen. Lekeitioko 3.620 etxetara ere bidali ziren galdera horiek. Kontuan izan behar da Lekeitio herri turistikoa dela eta bertako etxe asko bigarren egoitza direla. Lekeitio 2.000 familia inguru bizi dira. Azkenik, udal eraikinetan eta herriko 3 farmazietan ere inkestak jarri ziren, bai eta postontzi bereziak ere inkesta bete ondoren bertan uzteko. Guztira 356 inkesta jaso ziren, 7.200 biztanle dituen herri honetan.

Diagnostiko txostenaren emaitzak argitara emateko jardunaldi bat antolatu zen (arloka ateratako ondorio nagusiak aurkeztu ziren eta zahartzaroa bizitzeko modu berri eta alternatiboen inguruko hitzaldia ere egin zen, talde eragileak proposatuta). Jardunaldi horretan, 60 lagunek hartu zuten parte. Ekitaldia egingo zela jakinarazteko, Udalak kartelak jarri zituen herriko punturik nagusietan, ohiko komunikazio tresnak erabiltzeaz gain (webgunea, sare sozialak, asteroko albiste bideoa).

Ekitaldirako, ondorio nagusien 10 panel egin ziren, ondoren herriko zenbait puntutan jartzeko, eta jardunaldi egunean hormetan zintzilikatu ziren. Ondorio nagusien eskuorriak ere argitaratu ziren, herri osoari prozesuaren ondorioen berri emateko asmoz. Ekitaldian, berriz ere talde eragileak parte hartu zuen, eta aurkezpenak egin zituen.

Ekainaren 15ean, talde eragilea Barandiaran aretoan egon zen, nahi zuten herritar guztiek ondorioen panelak ikusi ahal izateko eta prozesuari buruz izan zitzaketen zalantzak argitzeko.

Diagnostiko faseari bukaera emateko, txosten osoa udal webgunean zintzilikatu zen, eta paperean ere banatu zen udaletxean eta adinekoen elkartean. Udalak ohiko komunikazio tresnak ere erabili zituen: webgunea, sare sozialak eta asteroko albiste bideoa.

Uda ostean, ekintza plana diseinatzeari ekingo zaio, eta horretarako ere parte hartzeko prozesua egingo da. Diagnostikoan parte hartu duten zenbait pertsonak jada adierazi dute ekintza planaren diseinuan parte hartzeko asmoa dutela.

9. Alderdi berritzaileak

Sistemaren xumetasuna bera da berrikuntza. Izan ere, edozein establezimenduren eskura dauden elementuei esker, eta inbertsio txiki bat eginda, asko hobetzen da eskainitako zerbitzua eta arreta.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Prozesua hasi bezain laster, talde eragileko kide batzuek adierazi zuten beldur zirela, horrelako prozesuek erantzun txikia jaso ohi dutelako. Lehenago ere egin izan dira parte hartzeko ekimenak herrian, baina denbora gutxira bertan behera geratu izan

dira, eta, kasu honetan ere, gauza bera gerta zitekeela adierazi zuten talde eragileko kideek.

Prozesuaren hasieratik argi eta garbi adierazi zen prozesuak aurrera egin zezan behar-beharrezkoak zirela pertsonen, komunitatearen eta udal erakundeen babesa eta konpromisoa. Zentzu horretan, talde eragileko pertsonen protagonismoa eta dinamizazioa erabakigarriak izan dira, ekimenak arrakasta izan dezan.

Lan koordinatua egin da, betiere oinarri hartuta askatasun arduratsua, konfiantza eta laguntzeko nahia.